A pesar de que se trata de una realidad común a muchas otras profesiones, las características de la propia actividad de los medios de comunicación (celeridad del trabajo, horarios, etc.) parecen hacer que la conciliación sea más difícil de alcanzar entre quienes ejercen labores periodísticas, una situación que se ve agravada con la revolución digital de los medios (Snyder *et al.*, 2019).




Fuente: APM (2017) / Elaboración propia.

Estos obstáculos explicarían por qué las mujeres optan en mayor medida por trabajar como autónomas, en jornadas con dedicación reducida o sin ocupar puestos de responsabilidad (Ross, 2001), y tienden a abandonar en mayor medida la profesión (Reinardy, 2011). Mientras tanto, aquellas que optan por seguir el ritmo de trabajo de los medios, sufren las consecuencias de su dedicación al Periodismo en forma de deterioro de su vida personal y familiar (Gill, 2007).

De nuevo aquí, las percepciones subjetivas de los profesionales difieren (De Miguel *et al.*, 2019). De acuerdo con la encuesta de la Asociación de la Prensa de Madrid (figura 4), encontramos posturas ambivalentes sobre la dificultad de conciliar en el Periodismo, en el que las opiniones —tanto de hombres como de mujeres— se reparten casi por igual entre quienes opinan que se puede conciliar y quienes piensan que no. Sin embargo, cuando se les pregunta solo a las periodistas, manifies-

tan que las labores de conciliación les afectan ellas en mayor medida (figura 4). En este aspecto, por ejemplo, se identifica de forma ampliamente mayoritaria a la maternidad como uno de los factores que limita el desarrollo profesional (figura 5).



**Fuente:** Larrondo-Ureta et al. (2021).

Algunos estudios apuntan a que existe entre los periodistas una arraigada cultura profesional que prioriza el trabajo en la pugna entre la vida profesional y familiar, en particular durante las primeras etapas de su carrera (Lukan & Zajc, 2023). De forma aparentemente contradictoria, el aspecto vocacional de la profesión también parece jugar en contra de la conciliación. La alta satisfacción de las y los periodistas con el trabajo que realizan hace que este sea una fuente relevante de satisfacción personal, lo que dificulta que se perciba la necesidad de cambiar de profesión o de condiciones laborales (Papí, 2006). El trabajo periodístico se reviste de una centralidad que haría que las decisiones se ajusten a esa fuente de realización.


Este modelo que asocia profesionalidad y dedicación también ha sido profusamente cultivado en los retratos que han hecho del periodismo los productos de ficción (películas, series), también en el caso de las mujeres. También ellas han sido mayoritariamente retratadas como profesionales que sitúan sus aspiraciones laborales en el centro de su dedicación, subordinando los aspectos personales y familiares a un segundo plano (Tello, 2012).

Por todo ello, la conciliación encuentra en el periodismo múltiples obstáculos que van desde las circunstancias objetivas de desigualdad, hasta una visión del ejercicio parcialmente romántica que provoca que el ejercicio de la profesión se anteponga a todo lo demás.

Si descendemos a las causas concretas, las dificultades para acceder a medidas de conciliación impactan en mayor medida en las mujeres, a partir de su mayor dedicación al cuidado. Según la encuesta realizada a profesionales de todo el mundo (Larrondo et al., 2021), las periodistas manifiestan que les resulta difícil acceder en sus puestos de trabajo a medidas o permisos que faciliten esta labor de conciliación, y un 76% piensa que es «muy» o «bastante» difícil obtener un permiso no retribuido por motivos familiares, mientras que el 73,1% encuentra dificultades para obtener una reducción horaria por los mismos motivos, el 66,6% para disponer de tiempo libre para atender asuntos personales y el 65,4% para poder optar a días sin sueldo.


A partir de estas dificultades, y dado el frágil equilibrio entre la vida personal y profesional, puede explicarse que las personas que opten por un mayor tiempo disponible fuera del trabajo recurran en mayor medida a dedicaciones reducidas, puestos sin responsabilidad, e incluso terminen abandonando con mayor facilidad la profesión. Así, por ejemplo, en el contexto excepcional de la pandemia, un informe del Sindicato de Periodistas de Andalucía (SPA, 2020) concluía que un 83% de

las mujeres periodistas había solicitado una reducción de jornada o había optado por otra medida de conciliación vinculada al Covid-19.



Fuente: Larrondo-Ureta et al. (2021).

Entre los aspectos específicamente profesionales que dificultan el equilibrio entre su vida personal y laboral, las profesionales destacan como principal motivo el horario de trabajo en los medios de comunicación, que un 53,6% considera que tiene un alto impacto a la hora de dificultar la conciliación. También se mencionan como características profesionales que obstaculizan la conciliación la carga de trabajo (48,1%), el tipo de jornada laboral (42,9%) o el desempeño de labores de responsabilidad (40,7%). Sobre otros aspectos, existe una visión más ambivalente, como por ejemplo la posibilidad de acceder a permisos o decidir los periodos vacacionales, el salario o la estabilidad en el puesto de trabajo.



Fuente: Larrondo-Ureta et al. (2021).

Por todo ello, algunos medios de comunicación ya han comenzado a desarrollar políticas específicas para fomentar las medidas de conciliación (Trillo, 2016).

## Conclusiones

Las asociaciones profesionales del Periodismo llevan reclamando desde hace años que la lucha por la igualdad sea un tema prioritario también dentro de los medios de comunicación (FAPE, 2019). Las reivindicaciones abarcan medidas para acabar con la brecha salarial, evitar el acoso laboral o a través de Internet, o incrementar la presencia de mujeres en puestos directivos, todo ello para acabar con el techo de cristal que aún se manifiesta en la profesión, y que tiene como mejor ejemplo el contraste entre el número de vocaciones en la etapa formativa y la realidad del ejercicio profesional.

Entre estas medidas, a la luz de lo que opinan las propias profesionales, el fomento de las medidas de conciliación personal, laboral y familiar puede ser otro factor relevante para contribuir a reducir las brechas existentes. Aunque para lograrlo, las dificultades pueden ser variadas. Por un lado, la arraigada cultura profesional y empresarial que sitúa en el centro la dedicación al trabajo periodístico constituye sin duda un primer obstáculo. La creación de modelos y roles diferentes puede ser, sin duda, una labor a largo plazo, en la que los modelos de éxito no se asocien exclusivamente con una exigida dedicación casi exclusiva al trabajo.

En este sentido, autoras como De Bruin (2000) y Ross (2001) señalan que la identidad profesional del periodismo ha estado tradicionalmente vinculada a los valores masculinos, lo que ha provocado que sean estos valores —muy alejados de la conciliación de la vida laboral y familiar— los que priman en la identidad organizacional de las empresas mediáticas.

Por otro lado, el propio ritmo del trabajo, y la centralidad que él tiene la gestión del tiempo, ha llevado a que se haya llegado a proponer un total replanteamiento del modo en el que los profesionales gestionan su jornada laboral y su productividad, con una flexibilidad mucho mayor, al margen de las rutinas de trabajo fuertemente arraigadas. Esta flexibilidad podría ser una de las vías para que un mayor número de mujeres permanecieran en la profesión (Everbach y Flournoy, 2007).

Por todo ello, no basta solo en identificar y operar sobre las brechas objetivas, sino también tratar de incidir en sus causas que, en el caso de la conciliación, requeriría en muchos casos de un cambio en la cultura empresarial y profesional, e incluso un cambio en los modelos en los que las y los periodistas se perciben a sí mismos.

## Referencias

- Asociación de la Prensa de Madrid (APM) (2017). *Informe anual de la profesión periodística*. APM. <https://www.apmadrid.es/publicaciones/informe-anual-de-la-profesion/>
- Asociación de la Prensa de Madrid (APM) (2018). *Informe anual de la profesión periodística*. APM. <https://www.apmadrid.es/publicaciones/informe-anual-de-la-profesion/>
- Caro-González, F. J., García-Gordillo, M. M., Rodríguez-Rad, C., & Jiménez-Marín, G. (2007). Techo de cristal en las empresas periodísticas: percepción de las habilidades y capacidades de la mujer en las tareas de dirección. *Ámbitos*, 16, 395-407.
- Chambers, D., Steiner, L., & Fleming, C. (2004). *Women and journalism*. Routledge.
- De Bruin, M. (2000). Gender, organizational and professional identities in journalism. En M. Bromley, Michael, H. Tumber & B. Zelizer (eds.), *Journalism. Theory, practice and criticism* (pp. 217-238). SAGE Publications.

- De Miguel, R., Parratt, S., & Berganza, R. (2019). Las percepciones de las mujeres periodistas sobre su trabajo. La variable género en la cultura profesional. *Revista Latina de Comunicación Social*, 74, 1818-1833. <https://doi.org/10.4185/RLCS-2019-1412>
- De-Miguel, R., Hanitzsch, T., Parratt, S., & Berganza, R. (2017). Women journalists in Spain: An analysis of the sociodemographic features of the gender gap. *Profesional de la información*, 26(3), 497-506. <https://doi.org/10.3145/epi.2017.may.16>
- European Institute for Gender Equality (EIGE) (2013). *Review of the implementation of the Beijing platform for action in the EU member states. Women and the media: Advancing gender equality in decision-making in media organisations*. EIGE. <https://doi.org/10.2839/73389>
- Everbach, T. & Flournoy, C. (2007). Women Leave Journalism For Better Pay, Work Conditions. *Newspaper Research Journal*, 28(3), 52-64.
- Federación de Asociaciones de Periodistas de España (FAPE). (2013). *Igualdad en el periodismo*. Estudio de Comunicación.
- Federación de Asociaciones de Periodistas de España (FAPE) (2019). *Igualdad de género*. FAPE. <https://fape.es/igualdad-de-genero/>
- Gill, R. (2007). *Gender and the media*. Polity Press.
- Global Media Monitoring Project (GMMP) (2020). *Who makes the news? 6th Global Media Monitoring Project*. GMMP. <https://whomakesthenews.org/>
- Hanitzsch, T., & Hanusch, F. (2012). Does gender determine journalists' professional views? A reassessment based on cross-national evidence. *European Journal of Communication*, 27, 257-277. <https://doi.org/10.1177/0267323112454804>
- International Women's Media Foundation (IWMF) (2011). *Global Report on the Status of Women in the News Media*. IWMF. <https://www.iwmf.org/wp-content/uploads/2018/06/IWMF-Global-Report.pdf>
- Larrondo-Ureta, Ainara & Peña-Fernández, Simón (2021). Periodismo, brecha de género y conciliación. *Kazetariak*. <https://kazetariak.eus/periodismo-brecha-de-genero-y-conciliacion/>
- Lukan, T. & Zajc, J. C. (2023). «If you don't agree to be available 24/7, then you have nothing to do in journalism»: the boundary work tactics of precarious journalists *Community, Work & Family*, 26(4), 411-427. <http://doi.org/10.1080/13668803.2022.2050356>
- Papí-Gálvez, N. (2007). ¿Maternidad y periodismo? La conciliación de la vida familiar y laboral en la prensa diaria valenciana. En L. Álvarez Pousa, A. B. Puñal Rama & J. Evans Pim (Eds.), *Comunicación e xénero* (pp. 391-413). Colexio Profesional de Xornalistas de Galicia.
- Paulussen, S. (2012). Technology and the transformation of news work: Are labor conditions in (online) journalism changing? En E. Siapera & A. Veglis (Eds.), *The Handbook of Global Online Journalism* (192-208). Wiley-Blackwell.
- Peña-Fernández, Simón et al. (2022). The Gender Gap in Journalism. Characteristics and perception. *Área abierta*, 22(2), 173-183. <https://doi.org/10.5209/arab.79087>
- Pérez-Dasilva, Jesús Ángel et al. (2021). *Perfiles digitales de los periodistas vascos y diálogo con las audiencias*. UPV/EHU. <https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USM00213410>
- Reinardy, S. (2011). Newspaper journalism in crisis: Burnout on the rise, eroding young journalists' career commitment. *Journalism*, 12(1). 33-50. <https://doi.org/10.1177/1464884910385188>
- Rivero-Santamarina, D., Meso-Ayerdi, K., & Peña-Fernández, S. (2015). La feminización de los estudios de Periodismo. *Revista Latina de Comunicación Social*, 70, 566-583. <https://doi.org/10.4185/RLCS-2015-1060>

- Ross, K. (2001). Women at work: journalism as en-gendered practice. *Journalism Studies*, 2(4), 531-544. <https://doi.org/10.1080/14616700120086404>
- Ross, K (2013). *Gendered media. Women, men and identity politics*. Rowman & Littlefield.
- Sindicato de Periodistas de Andalucía (SPA) (2020). COVID19: cuestionario sobre el impacto en el trabajo de las y los profesionales del periodismo y la comunicación en Andalucía. <https://www.spandalucia.com/covid19-cuestionario-sobre-el-impacto-en-el-trabajo-de-las-y-los-profesionales-del-periodismo-y-la-comunicacion-en-andalucia/>
- Snyder, I., Johnson, K., & Kozimor-King, M. L. (2021). Work–life balance in media newsrooms. *Journalism*, 22(8), 2001-2018. <https://doi.org/10.1177/1464884919841759>
- Šojdrová, M. (2018). *Informe sobre igualdad de género en los medios de comunicación en la Unión Europea*. Comisión de Derechos de la Mujer e Igualdad de Género. Bruselas: Parlamento Europeo. [https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-8-2018-0031\\_ES.html](https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/A-8-2018-0031_ES.html)
- Soriano, J., Cantón, M.J., & Díez, M. (2011). La pseudofeminización de la profesión periodística en España. *ZER*, 10(19). <https://doi.org/10.1387/zer.3838>
- Tello Díaz, L. (2012). La Representación de la mujer periodista en el cine español (1896-2010): Estereotipo, ética y estética. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, 7, 99-117.
- Trillo, M. (2016). Granada Hoy, la conciliación en periodismo (también) debe ser posible. In Oller, M. & Tornay, M. C., *Comunicación, periodismo y género. Una mirada desde Iberoamérica (171-202)*. Madrid: Egregius.



## Amatasuna ikerketa eremua kazetaritzan: gakoak eta erronkak

*Maidier Eizmendi Iraola*

Kazetaritza Saileko Irakasle Atxikia  
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
[maider.eizmendi@ehu.es](mailto:maider.eizmendi@ehu.es)

Feminismoaren baitan zaintzaren inguruko eztabaidak indarra hartu du azken denboran eta mugimenduak zentraltasuna eman dio, lehenespenezko gaia bilakatuta (Esteban, 2017). Euskal Herrian bertan, aurreko urteetako ildoari jarraituta, 2023ko Martxoaren 8ko aldarrikapenen zerrendan oinarritzko tokia hartu zuen eta mugimendu feministak eta hainbat sindikatuk 2023ko azaroaren 30erako deitutako grebak zaintza lanak erdigunean jartzeko premia aldarrikatu zuen.

Emakumeei tradizionalki egotzi zaizkien zaintza eginkizunak ezin dira oinarri historiko, kultural eta generokoetan erreparatu gabe ulertu, noski. Idazki honetan, espresuki, amatasunari erreparatu nahi izan zaio, emakumezko kazetarien lan-ibilbideak eta esperientziak jorratzeko. Ikuspegi mugatua da. Familia eremua eta profesionala bateragarri egiteko estrategiez aritzeko edota zaintza be-tebeharrek emakume profesionalengan dituzten eraginak aztertzeke ez da nahikoa adin txikikoen zaintzan erreparatzea. Edozein kasutan, kazetaritza lanbidearen inguruan egindako ikerketek amatasuna eta emakumeek komunikabideetan egiten duten lana uztartzeko zailtasunak agerian jarri dituzte behin eta berriz (García Saiz, 2018). Gainera, kazetariak beren lanbideaz eta egoera profesionalaz duten iritzia jasotzeko egin diren saiakeretan amatasuna kontziliaziorako eta karrera profesionalan aurrera egiteko lehen mailako oztopoa dela nabarmendu da (Rivero-Santamarina & Meso-Ayerdi, 2014).

Generoari lotutako datuei erreparatuz gero, komunikazio eremuan lanean ari diren gizon eta emakumeen portzentaien artean desberdintasun gutxi dago ibilbide profesionalaren hasieran; hau da, ia proportzio berean sartzen dira erredakzioetan emakumeak eta gizonak. Datu orokorreari erreparatuta, Women's Media Center erakundeak 2019an kaleratutako datuen arabera, kazetaritza enpresetan langileen %41 dira emakumezkoak. Portzentaiak, gainera, gora egin du azken urteetan. Hala ere, erakunde honek emakumeek zuzendaritza eta erabaki postuetara iristeko oztupoak dituztela nabarmendu du. Esaterako, emakumeen presentzia askoz ere apalagoa da erdi-mailako ardura postuetan eta, are gehiago, zuzendaritzako goi karguetan; ehunekoak, azken kasu honetan, %27koa

da. Beraz, emakumeek badute komunikabideetan ibilbide profesionala garatu eta erabaki karguetara iristeko zailtasuna, beirazko sabaia bada eta, autore batzuen esanetan, zementuak adinako gogortasuna du (Lopez, 2022).

Bada, ordea, deigarria den beste datu bat: erredakzioetan ari diren emakumeen portzentaiak, oro har, beheranzko joera du 35 urtetik aurrera. Beraz, kontuan hartzeko modukoa da kazetaritzan aritu eta lanbidea uztea erabakitzen duten emakumeen ehunekoa. Ikerketen arabera, erabaki horretan kontziliaziorako zailtasunek badute eragina (De Vuyst & Raeymaeckers, 2019), eta komunikabideetan aritu garenok lehen pertsona bizi eta sentitu dugu ezintasun hori edo, zuzenean, lanbidea utzi eta bestelako lan eremuetan hasi diren kazetarien adibide gara. Gainera, profesioan ibilbidea egiten jarraitzea erabakitzen duten emakumeek eszedentziak edota jardunaldi murrizketak gizonen baino sarriago hartzen dituzte; horrek, noski, eragina du haien garapen profesionalan.

Beraz, emakumeengan amatasunak edota gizonengan aitatasunak dituen ondorioak ez dira berdinak, are gehiago, kontuan izanda ibilbide profesionalan aurrera egiteko garrantzitsua den une batean bizi dutela emakume askok amatasuna. Halaber, haurren zaintzak badu, sozializazio prozesuaren eta gizartean errotuta dauden aurreiritzien eraginez, zaintza lanen baitan konnotazio berezi bat. Anei edota etorkizunean izango direnei bideratzen zaizkien mezuetan erreparatu baino ez dago.

Espezifikoki kazetaritzan arreta jarri aurretik, ordea, amatasunak ikerketa objektu gisa izan duen garrantzia eta ibilbidea aztertzea interesgarria da. Erpin eta ikuspegi asko dituen gaia da eta, beraz, zabal eta diziplina ugariatik aztertu da. Noski, biologia edota osasun zientzietatik erreparatu zaio. Baina, batez ere, giza eta gizarte zientzietatik egindako gerturatzean jarri nahi da fokua eta, bereziki, mugimendu feministan sortutako aldarrikapenei lotuta garatu den horri; izan ere, ikuspegi desberdinetatik bada ere, feminismoak sarritan hartu du gaia ahotan eta sistema patriarkalaren oinarriak eta amatasuna eta familiaren inguruko diskurtsoak auzitan jarri ditu, eztabaida mamitsuak jorratuta. Auzi horietan sakontzeko asmorik gabe, amatasunaren inguruan izan diren irakurketa nagusiei erreparatuko zaie, onartuta gai honen inguruan garatu diren teoriak ezin direla lerro bakar batzuetan laburbildu, orokortu edo sinplifikaziora jo gabe.

Berdintasunaren feminismo gisa izendatu den korrontearen ordezkari, Simone De Beauvoir amatasunaz mintzatu zen 1949. urtean argitaratu zuen «Bigarren Sexua» liburu ezagunean. Lan aitzindari horretan amatasuna emakumeentzat lotura zela nabarmendu zuen, amatasun sena auzitan jarri zuen eta amatasuna kulturalki eraikitako kontzeptua zela nabarmendu zuen. Haren ustetan, emakumeen berdintasuna lortzeko oztopoa zen. Horrenbestez, oinarri teoriko honi jarraituta, hainbat autorek egingo diote erreferentzia ideia honi ondorengo urteetan; hala, 60., 70. eta 80. hamarkadetan hainbat lan argitaratu ziren amatasunaren eta hark emakumeen sozializazioan eta berdintasunean zuen eragina aztertzeko.

70. eta 80. hamarkadetan, ordea, Diferentziaren feminismoak emakumeen amatasun funtzioa aldarrikatuko du, identitate, plazer eta ezagutza iturri dela argudiatuta. Korronte honen arabera, emakumeek badituzte berezko ezaugarri batzuk eta identitate hori balioestea proposatuko dute. Ikusmolde honetan lerratuko diren autoreen arabera, arazoa ez da amatasuna, haurren zaintzaren eta etxeko lanen ardura emakumei soilik egozte baizik, hala, bereizi egin zituzten ama izatearen esperientzia eta amatasuna erakunde gisa. Abiapuntu hau hartuta garatuko diren teorien baitan, amatasuna emakumeentzat esperientzia positiboa eta garapenerako aukera da eta haurren beharrak merkatuaren beharren gainetik jartzea aldarrikatu du.

Azken hamarkadetan izan diren eztabaidak bizirik daude gaur egun oraindik eta familia eredu desberdinek zein ugalketarako garatutako bitartekoek eztabaidarako testuinguru berriak jarri dituzte mahaiaren gainean. Finean, amatasunaren inguruko iruditeria moldatu egin da historian zehar eta egokitu egin da testuinguru eta etapa desberdinetara, baina balore, arau eta eredu berberak mantenduta. Amatasunaren gizarte eraikuntza prozesuak haren jardunari buruzko aginduak sortzen ditu, subjektuetan eta erakundeetan gorpuzten eta, era berean, diskurtso eta irudikapenen bidez erreproduzitzen direnak (Palomar, 2004: 16)

Aipatutako korrante eta kontzeptuak giza eta gizarte zientzien arloko diziplinetara eraman eta amatasuna, besteak beste, historia, soziologia edota antropologiaren eremutik aztertu da. Egun oraindik amatasunaren kontzeptuan eta emakumeen esperientzian sakontzeko edota haurren zaintzak emakumeen ibilbide profesionalen duen eragina aztertzeko ikerketa ugari egiten da. Azken eremu honi helduta erreparatuko zaio kazetaritzari. Izan ere, nola uztartzen dira amatasuna eta kazetaritza? Zergatik da garrantzitsua komunikazio ikerketan amatasuna aintzat hartzea?

Emakumeek komunikabideen mezuan duten tokia aztertzeko egin diren ikerketek ibilbide luzea dute egina. Kazetariak genero ikuspegitik komunikabide enpresetan dituzten baldintzen inguruko ikerketa berriagoa da, ordea. Kazetaritza enpresetan dagoen diskriminazio bertikala aztertu dute horietako batzuk, ibilbide profesionalean aurrera egiteko dituzten oztopoetan fokua jarrita; sekzio edo gai zehatzetan ari diren kazetarien jardunean erreparatu dute beste batzuk, diskriminazio horizontala ere badela ohartarazteko. Datu eta zenbakietan ez ezik, kazetari modura dituzten esperientzia eta pertzepzioen ikerketak ere izan du tartea.

Emakumeek erredakzioetan bizi duten diskriminazioaren atzean egon daitezkeen arrazoen ikerketak, noski, faktore anitzeko analisia eskatzen du, baina, edonola ere, kazetaritza lanaren ezauzgarriak eta horiek amatasunarekin uztartzeko zailtasunek badute zeresana. Ez dira gaiak dituen erpin guztiak jorratuko, baina arazoaz hausnartzeko hiru gako aipatuko dira, bederen.

Orokorrean, pertzepzioetan eta aukeran dauden baliabideetan aurrerapenak izan badira ere, oraindik ere zaintza lanek desorekak eragiten dituzte; ez da gizarteak bere gain hartzen duen eginkizuna eta sozializazio prozesuan zaintza lanetarako desberdin hezten dira neskak eta mutilak. Horrek baldintzatzen du etorkizunean eginkizun horiek egiten eta ordu eta minutuetan neurtzen zailagoan den kudeaketa lanean emango duten denboran. Kazetaritzara mugatzen ez bada ere, heziketak eta zaintzan emakumeek eta gizonek ematen duten denbora desberdinak eragina du komunikabideetan aritzen diren emakume profesionalen ibilbidean eta, beraz, aintzat hartu beharreko gakoetako bat da. Gutxiago aipatu izan den arren, haurren zaintza eta lana bateragarri egiteko zailtasunek eragiten duten sentimendua ere kontuan hartu behar da, kulpa sentsazioa, alegia. Besteen ongizatearekiko kezka, pisua duen arren, kulpa dosi handiak, ardurak eta betebeharrak sentimenduak, hertsadurak eta inposizio normatiboak eragina dute (Perez-Orozco, 2015).

Gainera, ikertzaile batzuek nabarmendu dute azken urteetan amatasunari buruzko ideologia kontserbadorea indarra hartzen ari dela berriz (Alcalá-García, 2015) eta horrek, noski, eragina du, biziaren horietan. Edonola ere, emakumei zaintzaren eta, batez ere, haurren zaintzarekin lotuta bideratzen zaizkien mezuek etengabeak dira eta oso lotuak daude «ama onaren» eta egun, agian, indarra hartu duen «ama-ona-ederraren» ideiarekin. Emakumeek, «super emakume» izan behar dute (Moreno, 2002).

Ideiak hauek estereotipoetan oinarrituak daude eta ezarritako eredu horiek jarraitzen ez dituzten emakumeak zigortzeko balio dute, baita nork bere burua mugatzeko ere. Zentzu horretan,

gizarte patriarkalaren baitako femeninotasunaren ardatzetako bat da «ama maitasuna» (Saleti, 2008: 172):

«Paradoxikoa da, izan ere, alde batetik, gutxietsi egiten da instintiboa, naturala, delako eta, beraz ez du bereganatzeko inolako ahaleginik eskatzen; eta, aldi berean, eskakizun bat da emakumeentzat, eta “ama txar” izatea leporatzen zaie, gizarteak espero dituen maitatzeko moduak erakusten ez badi-tuzte».

Arlo honetan, aipatzekoa da gizarte presioak, nahiz norberak bizi edo sentitzen duenak, eragina duela, halaber, «zementuzko sabai» gisa definitu den horretan, hau da, emakumeek ibilbide profesionalean aurrera egiteko euren buruari jarritako mugetan. Euskal Herrian aritzen diren kazetarien elkarriketetan, behin eta berriz errepikatzen da «kulpa» sentsazioa; kontuan hartu behar da, gainera, emakumeen kasuan, anbizioa ez dela beti saritzen den ezaugarria.

Halaber, eta bigarren gako gisa, erreparatu behar zaio erredakzioetako joera eta errutinei. Linda Steiner (2017) ikertzaileak dio kazetaritza emakumeak eta batez ere amak kaltetzen dituen kultura baten gainean garatu zela, besteak beste, ordutegi luze eta irregularrak lehenesten dituen ereduari, alegia.

«Denboran zehar, beren estatusa, enpleguak eta soldatak babestu nahi izan dituzte, eta ez dute onartu kazetaritza gizonen eremu gisa finkatu zela, balio “matxistak” eta emakumeei, bereziki ama direnei, kalte egiten zien kultura bat zela, ordutegi luze eta irregularren tradizioarekin eta haurren zaintzarik aintzat hartzen ez zuena». (Steiner, 2017)

Ildo beretik eta Juana Gallegok (2002) kazetaritza kultura bezala definitu duen kontzeptuari eutsita, badira erredakzioan ari diren kazetariak elkarbanatzen dituzten balore, arau eta jarduteko moduak eta, autore honen esanetan, kazetaritza kultura horretan balore maskulinoak nagusitu izan dira. Horrek eragin du, bere hitzetan, komunikabideen bitartez zabaltzen diren estereotipoetan, mezuari alegia, baina baita ere, erredakzioen osakeran eta emakumeen jardunean, bereizkeria bertikala eta horizontala, biak, eragiten ditu kultura horrek.

Azkenik, eta aurreko ideia honi estu lotuta, oraindik ere kazetaritza lanbidearen ikuspegi erromantikoak indarra du. Profesional gehienek bokazioari egiten diote erreferentzia lanbidearen aukeraketaz ari direnean; irudimen kolektiboan etengabe informazioaren atzetik eta egutegirik eta ordutegirik gabe aritzen den profesionalaren imajinarioak indarra du.

Araudiei dagokienez, komunikazio enpresa hainbatek sortu dituzte berdintasun planak eta haietan kontziliaziorako ildo edo jarraibideak ezarriak daude. Komunikabideetako hitzarmen kolektiboetan jasoak daude jardunaldien, ordutegien eta kontziliaziorako neurrien zehaztapenak. Haietan, espresuki, aipatzen da kazetaritza lanbidearen bereizitasuna, eta testuetan bertan bereizten dira erabateko prestutasuna eskatzen duten karguak —zuzendaritza eta erabaki postuei lotuak horietako asko— eta, oinarritzko ordutegia izanagatik, salbuespenetara egokitu behar duten profesionalak. Halaber, kazetarien lana ordutegiei ez ezik, eginkizunei lotua dagoela jaso dago hitzarmen horietako batzuetan. Ezarritako eginkizuna amaitutakoan amaitzen da lanaldia, onerako zein txarrerako.

Zentzu honetan, azken hiru hamarkadetan aldaketa handiak izan dira komunikazioaren testuinguruan. Teknologia berriek baliabideak eskaini dituzte edonon eta edozein unetan informazioa kontsumitu ahal izateko, eta produkzioa ere edozein lekutatik egitea erraztu du. Beraz, beste lan eremu batzuetan bezala, aukerak eman ditu, nolabait, lana eta zaintza uztartzeko. Telelana ezinbestean ezarri zen Covid-19aren pandemian eta kontziliaziorako tresna modura finkatu dela esan daiteke; aukera ona den ala ez auzitan jartzeko modukoa da, batik bat, aukera hori feminizatzen bada. Izan

ere, pandemia garaian egindako ikerketek ondorioztatu zuten garai horretan sustatutako politika publiko askok ez zutela gizarte edo genero desberdintasunak murrizten lagundu (Ritz, 2020) eta ez zela lanen banaketa desorekatuaz behar bezala hausnartu, bilatzen ez ziren ondorioak eragingo zituen neurriak proposatu aurretik.

Baina, era berean, komunikabideen digitalizazioak eta sektorean bizitutako krisiak eragina izan du lanpostuen galeran eta emakumeak izan dira kaltetuenak. Gainera, web orrien bidez komunikabideen informazio jariora ia etengabea da eta horrek, noski, eragina izan du kazetaritzan ari diren profesionalen lan errutinetan: informazioak une oro aktualizatzen direlako eta komunikabide enpresaren baitan biltzen diren produktu desberdinetan lanean aritu behar du kazetariak. 24/7 sistema ez da, neurriak hartu eta baliabideak eskaintzen ez badira, kontziliaziorako onuragarria. Arlo honetan, egin diren azken ikerketek ondorioztatu dute teknologia arloan izan diren aurrerapenek ez dutela eremu honetan onurarik ekarri; are gehiago, lana eta familia uztartzeko zailtasunak areagotu egin dira (Snyder *et al.*, 2021; Usher *et al.*, 2018)

Finean, amatasuna eta kazetaritza binomioak erronka eta ikerketa objektu izaten jarraitzen du. Izan bestek jarritako oztopoengatik edo nork bere buruari jarritako mugengatik, bi eremuen artean oraindik ere bada ezin ulertua. Hala, erredakzioetan aritutako, ari diren eta etorkizunean ariko diren gizonei eta emakumei dagokie zaintza lanek gizartean eragiten dituzten diskriminazio egoerak mahaiaren gainean jarri eta haien erroak mugiaraztea, baita lanbidetik bertatik ere.

## Erreferentziak

- Alcalá García, I. (2015). Feminismos y maternidades en el siglo XXI. *Dilemata*, (18), 63-81.
- De Vuyst, S., & Raeymaeckers, K. (2019). Gender as a multi-layered issue in journalism: A multi-method approach to studying barriers sustaining gender inequality in Belgian newsrooms. *European Journal of Women's Studies*, 26(1), 23-38. <https://doi.org/10.1177/1350506817729856>
- Esteban, M. L. (2017). Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología. *Quaderns-e de l'Institut Català d'Antropologia*, 22(2), 33-48.
- Gallego, J., Altés, E., Soriano, J., Melús, M. E., & Cantçon, M. J. (2002). La prensa por dentro. Producción informativa y transmisión de estereotipos de género. *Comunicación*.
- García Saiz, L. (2018). Análisis de la situación laboral de las periodistas españolas. *Cuestiones de género: de la igualdad y la diferencia*, (13), 7-27. <https://doi.org/10.18002/cg.voi13.5388>
- López, M. A. (2022). El techo de hormigón de las mujeres periodistas. *Cuadernos de periodistas: revista de la Asociación de la Prensa de Madrid*, (44), 95-99.
- Moreno L. (2002). Bienestar mediterráneo y «supermujeres». *Revista Española de Sociología*, 2, 41-57.
- Perez Orozco, A. (2015). *Subversión feminista de la Economía*. Madrid: Traficantes de Sueños.
- Ritz, M. (2020). Aprendizajes de las medidas de conciliación europeas con enfoque de género frente a la Covid-19. Colección EUROsocial 19. [https://eurosociAL.eu/wp-content/uploads/2021/02/19\\_26055\\_Aprendizajes-conciliacion-covid19o.pdf](https://eurosociAL.eu/wp-content/uploads/2021/02/19_26055_Aprendizajes-conciliacion-covid19o.pdf)
- Rivero, D., & Meso, K. (2014). Infrarrepresentación de las mujeres en el mercado laboral periodístico: análisis de las causas. *Trípodos*, 35, 95-115.
- Saletti, L. (2008). Propuestas teóricas feministas en relación al concepto de maternidad. *Clepsydra*, 7, 169-183.

- Snyder, I., Johnson, K., & Kozimor-King, M. L. (2021). Work–life balance in media newsrooms. *Journalism*, 22(8), 2001-2018. <https://doi.org/10.1177/1464884919841759>
- Steiner, L. (2017a). Gender and Journalism. Oxford Research Encyclopedia of Communication. <https://doi.org/10.1093/acrefore/9780190228613.013.91>
- Usher, N., Holcomb, J., & Littman, J. (2018). Twitter makes it worse: Political journalists, gendered echo chambers, and the amplification of gender bias. *International Journal of Press/Politics*, 23(3), 324-344. <https://doi.org/10.1177/19401612187812>

# Euskal Herriko profesionalen bizipenak, sentimenduak eta talkak

*Maidier Eizmendi Iraola*

Kazetaritza Saileko Irakasle Atxikia  
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea  
[maider.eizmendi@ehu.eus](mailto:maider.eizmendi@ehu.eus)

«Kazetaritzak askatasuna behar du; eta amatasunak huraxe kentzen dizu, kentzen digu emakumeoi». Nekez azaldu daiteke hain hitz gutxitan komunikabideetan aritzen diren emakume hainbatek bizi duten talka eta hark eragiten duen ezinegona. Aurrez aurre egindako elkarrizketen bidez, 2023ko apirilean egindako Emakom kongresuan antolatutako mahai-inguruko hitzak jasota eta kazetarien testigantzekin osatutako ikus-entzunezko lanetik batutako adierazpenak baliatu dira ondorengo lerroak osatzeko; ama diren kazetari eta komunikazio arloko profesionalen ahotik talka sentimendu horri argudioak eta azalpenak eman nahi izan zaizkio, bizipenez aberastu.

Kazetaritza ez da, inondik ere, lan merkatuan egiten den lana eta amatasuna uztartzeko zailtasunak sortzen diren eremu bakarra, ikerketa hainbatek enpresa alorrean edota zientzian (Castañeda-Renteria & Araújo, 2021; Solé & Rubio, 2004) ari diren emakumeen zailtasunak ere dokumentatu dituzte; alta, komunikazio esparruan ari diren emakumeen jarduera tasaren azterketak, esanguratsuek eta hausnartzeko modukoak diren datuak eskaintzen ditu.

Kazetaritza graduetan emakumeak gehiago dira eta gizonen pareko tasak dituzte erredakzioetan ibilbide profesionaleko lehen pausuak ematen dituztenean. Oro har, kazetaritza lanbidea genero ikuspegitik aztertu duten ikerketek xx. mendearen azken hamarkadetan eta xxi. mendearen hasieran emakume profesionalen kopuruak gora egin duela nabarmendu dute. Haien ibilbide profesionalean, ordea, etena dago. 30 eta 40 urte arteko kazetarien artean, emakumezkoen proportzioak behera egiten du (Rivero-Santamarina-Meso-Ayerdi, 2014); hain justu, emakume askok amatasuna adin tarte horretan bizi dute estreinakoz. Komunikabideetan egiten duten bidea, beraz, maldatsua da:

«Emakume indarrez hasten da kazetaritza lanbidean, baina gutxi dira ibilbide profesionala garatzen dutenak edota iraupen-lasterketaren helmugara iristen direnak. Erredakzioak zahartzen diren heinean, emakumezkoek utzi egiten dute arrazoi pertsonal, familiar, kulturak edo historikoengatik». (Canel et al., 2000:15)

Komunikazioaren esparruak baditu, izan ere, ibilbide profesionalean aurrera egin nahi eta, aldi berean, ama izan nahi duten emakumeei testuinguru gatazkatsua sortzeko bereizgarri propioak. Sharon Hays (1998) soziologoaren hitzetan, kazetaritza ziur asko ama diren emakumeentzat lan eremu konplexuenerako bat da. Eta gatazkaren mataza, gainera, nork bere kabuz eta «ahal duen moduan» askatzen saiatzen dira sarritan kazetari hauek, gai honen inguruan dagoen isiltasuna ez delako gaurdaino guztiz gainditu.

Hortik, hain zuzen ere, ondorengo lerroetan Euskal Herriko komunikazio arloko profesionalen<sup>1</sup> ahotik jasotako hitzen eta sentimendu adierazpenen garrantzia. Kazetaritzan eskarmentu luzea dutenak, hasi berriagoak direnak eta lanbidea utzi eta komunikazioari lotutako beste esparru batzuetan lanean ari diren emakumezkoen testigantzak elkartu dira. Eta, hala, arlo honen ikerketetan eta edukietan dagoen hutsuneari aletxo jarri nahi izan zaio.

### Ezaugarri desberdinak dituen lanbidea

Komunikazioaren esparruan lan egiten duten profesionalen egoera ez da homogenea eta lanbidean ezaugarri desberdineko jardunak topa daitezke; lan-eremuak guztiz baldintza dezake eguneroko zeregina eta erritmoa: «Ez da gauza bera, komunikabide pribatu batean edo publiko batean lan egin, edota irratian, telebistan, egunkari batean edo aldizkari batean aritu». Edonola ere, informazioa eta hura lantzeko beharrak, «ez du denborazkotasan zehatzik» eta, horixe da, hain zuzen ere, amatasuna eta kazetaritza bateragarri egiteko profesional hauek aipatzen dituzten zailtasunen munitako bat, «gauzak gertatzen direnean, gertatzen diren lekuan egon» behar baita.

Kazetaritza eskakizun handia duen lanbide gisa bereizi izan da, ez bakarrik komunikabide batean lan egiteak eskatzen duen denbora eta sormen saiakera handiagatik, baizik eta ofizioaren esentziagatik beragatik, gertakarien erritmoari erantzuten baitio ezinbestean (Dávila, 2018). Azken batean, kazetarien egitekoa albisteak kontatzea da eta informazioa «egunero eta une oro» sortzen da. Hala, nabarmendu dute elkarrizketatutako profesionalak:

«Orduz ongi edukitu nahi baduzue, lanbidea ez duzue ondo aukeratu. Guk albisteak kontatu behar baditugu eta albisteak egunero eta une oro pasatzen dira; beraz, guk ez daukagu egun gorririk: zubiak, Gabonak, Gabon Zaharrak... albistegietan egunero gaude lanean, egunero daude albistegiak».

Antolaketari dagokionez, gainera, eragile hainbatek zehaztutako agendaren arabera egin behar izaten dute lan eta horrek kazetarien ordutegia guztiz baldintzatzen du:

«Erakunde, elkarte zein talde desberdinek antolatutako deialdi, emanaldi, prentsaurreko, pleno, ikuskizun eta abarrak landu behar horrek, sarri, goizean hasi eta iluntzean edo gauean bukatzerara arteko jardunak ekartzen ditu».

Baina kamera, mikrofono edota ordenagailuaren aurrean pasatu beharreko orduz beste, kazetariak informazioarekiko duten erantzukizunaz ere mintzo dira, hura ez baita erredakzioko atea gurutzatutakoan alboratzen: «Beti daukazu ardura hori buruan: kazetaria zara astean zazpi egunez eta hogeita lau orduz, etenik gabeko gauza bat da». Finean, sentitzen dute «une oro martxan egon beharra eskatzen duen» lanbidea dela euren edo hala ulertarazi izan zaie behintzat; alegia, «intensitate eta erritmo bizia beharrezkoak direla profesional ona izateko».

<sup>1</sup> Nerea Reparaz EITBko kazetariak; Monika Belastegi Ttap aldizkariako zuzendariak, June Guenetxea, Anboto aldizkariako zuzendariak, Saioa Martija EITBko kazetariak, Maria Ganzabal UPV-EHUko Kazetaritza departamenduko irakasleak, Udane Goikoetxea UPV-EHUko Kazetaritza departamenduko irakasleak, Arantza Gutierrez UPV/EHUko Ikus-entzunezko departamentuko irakasleak; Amaia Uribe EITBko kazetariak eta Aintzane Bolinaga EITBko kazetariak eman dituzte euren testigantzak.

Tamainaz txikiagoak diren komunikabideetan, tokikoetan esaterako, herritarrekiko harremana zuzenagoa da eta horrek erantzukizunean eta lan erritmoan eragiten duela uste dute:

«Tokiko hedabideetan gertukoa kazetaritza egiten dugu, beraz, gure kasuan, etengabe egon behar izaten dugu gertatzen diren gauza guztiei erantzuten, eta horrek jardun luzeak ekartzen ditu askotan eta kontziliaziorako zailtasunak».

Askatasuna da elkarrizketatuen iritzian kazetaritza lanbidearen ezaugarri funtsezkoetako bat: «Kazetaritzak askatasuna behar du; eta amatasunak huraxe kentzen dizu, kentzen digu emakumeoi», bai, bederen, bizitzako aldi batean. Bidaiatzeko, informazioaren erritmoari egokitzeko zein sormenez eta zuzentasunez edukiak sortzeko kazetariak behar duten independentzia ez da, euren ustetan, amatasunak bereziki emakumeei suposatzen dien loturarekin ondo ezkontzen.

Teknologia berrien garapenari esker, informazioaren ekoizpen prozesua aldatu da eta gaur egun etxetik aritzeko aukera bada. Covid-19aren garaian, gainera, etxeko bulego edo egongelak bilakatu ziren aldi luze batean erredakzio, eta pandemia gaindituta, arrastoa utzi du erredakzioen antolaketa eremuan. Lana eta amatasuna uztartzeko unean uneko irtenbidea izan badaiteke ere, ez dute, oro har, kontziliaziorako tresna gisa eraginkorra dela uste elkarrizketatutako profesional guztiek. Gainera, iruzurra ere suposa dezakeela iritzi diote, baldin eta etxetik aritzeko aukera hori emakumeek baliatzen badute eta ez gizonak: «Ea berriro emakumeek etxera bidaltzen gaituzten kontziliaziora; lan bikoitza egitera, baina erosoago».

Erredakzioko antolaketa eran ez ezik, komunikazioaren funtsa ere irauli dute teknologia berriek eta ekoizpen prozesuak bizkortu. Informazioa jariora etengabea da gaur egun, eta horrek, jakina, kazetariei egiten zaizkien eskakizunetan izan du intzidentziarik:

«Web orria etengabe elikatu behar da; astekariak gain, egunero, baita asteburuetan ere, web orrian edukiak sartu behar dira, adi egon gertatzen denari. Gure kasuan, asteburuko txandak ditugu eta egutegiaren arabera antolatzen ditugu. Larunbat eta igandeetan ere lan egitea dakar horrek».

Lantalde txikietan ari diren kazetariak, oro har, kontziliaziorako zailtasunak aipatu dituzte, baina, era berean, lankideen arteko gertutasuna handiagoa da eta haiengan topatu dute sostengua eta laguntza sarri, sarea alegia:

«Onerako zein txarrerako lan-talde txikia gara eta emakume asko ditugu. Guztion seme-alabak eza gutzen ditugu eta gertutasun horrek mesede egiten digu, guztiok laguntzen dugu elkar. Hala, haurrak zaintzeko arazoren bat sortzen bada, lankideen artean konpontzeko modua dugu».

## Prekarietatea eta kontziliazio neurriak

Lanbidearen bereizgarri eta gaitz, 2008ko krisiaz geroztik indartu egin da prekarietatea eta emakumeak izan dira kalterik handiena jasan dutenak (Trillo-Domínguez, 2016), besteak beste, lankide gizonetzkoak baino gehiago kaleratu dituztelako. Ziurgabetasuna horrek ez dio mesede egiten emakumezko kazetarien ibilbideari. Amatasunaz eta, batez ere, ama izateko aukeraz hausnartzen hasitakoan, zalantza eta ezinegonaz mintzo dira horregatik:

«Ni hasi nintzenez, sei hilabeteko ordezkapen-kontratuak lotuz aritu nintzen lanean. Egoera horretan ez nuen ama izateko aukerarik ikusten. Esaten nuen: “Igualek ama baldin banaiz, gero jada ez naute dituko, beste norbait kontratatuko dute...”. Oso mundu lehiakorra da gurea».

Beste kasu batzuetan, lanbidea bera alboratu dute, «kazetaritza eta amatasuna ez zirela bate-ragarriak» aurreikusi zutelako.

En opinión de esta autora, junto al «esquema de devoción laboral», que define la orientación del tiempo, las energías y la pasión en el empleo y la carrera profesional, históricamente y paralelamente se ha construido un «esquema de devoción familiar» que prescribe la responsabilidad y el protagonismo y la dedicación intensiva de las mujeres, en tiempo y energías, al ámbito doméstico y al cuidado. Un esquema de devoción que va de la mano del papel tradicional que como madre y trabajadora doméstica se ha atribuido a las mujeres en la familia moderna con todos sus «grilletes»: maternidad intensiva, responsabilidad doméstica, dependencia económica del varón y liberación total o parcial de tiempo de cuidado. En las entrevistas a ejecutivas de distintas cohortes, Blair-Loy (2001: 706) comprueba que este esquema cultural sigue marcando referencialmente sus biografías, «siendo su estrella polar», a pesar de que varíe el modo de gestionar el conflicto. Cuando se desea perseguir un desarrollo profesional, las mujeres se ven prendidas entre esas dos lógicas y empujadas, a veces, a primar una de ellas.

goeko hamarkadan egindako elkarrizketak errepikatu egi nituela bi hamarkada ondoren. Bigarren bolada horretan elkarrizketatutako emakumeak gazteak ziren, berdintasun eszenatokian hasitakoak. Eta elkarrizketa horietan egiaztatu genuen, bi logika horien arteko gatazka indarrean dagoela. «Amatasuna» jarraitzen du eskema horretako «ipar-izarra» izaten. Espero dut jardunaldi hau aukera bat izatea horretaz hitz egiteko eta «harrapatuta» gaituen eskema hori «desaktibatze» eta askatzeko aldaketak identifikatzeko aukera ematea. Kazetari izan nahi duten emakume gazteak eredu berriak behar dituzte, amatasuna ez dadin izan galga euren ibilbide profesionaltan. Mila esker.

## Referencia

Blair-Loy, M. (2001). Cultural Constructions of Family Schemas: The Case of Women Finance Executives. *Gender and Society*, 15(5), 687–709. <http://www.jstor.org/stable/3081970>

## Mahai-ingurua • Mesa redonda

Jardunaldiaren antolatzaileak (Gureiker Taldea) eskerrak eman nahi dizkie EMAKOM 2023 jardunaldiari amaiera emateko egin den mahai-inguruan parte hartu duten kazetari eta adituei (Amaia Uribe Astorkia, EITB Taldeko kazetaria; Monika Belastegi Aranzabal, Goiena Komunikazio Taldeko kazetaria; Arantza Gutiérrez Paz, UPV/EHUko irakaslea) haien ekarpen eta ikuspuntuengatik, baita Estitxu Garai moderatzaileari eta antolaketa parte hartu zutenei ere bai • Los organizadores de la Jornada (Grupo Gureiker) agradecen a las periodistas y expertas participantes (Amaia Uribe Astorkia, periodista del Grupo EITB; Monika Belastegi Aranzabal, periodista del Grupo de Comunicación Goiena; Arantza Gutiérrez Paz, profesora de la UPV/EHU) sus aportaciones y puntos de vista en el debate de la mesa redonda celebrada como broche de la jornada EMAKOM 2023, así como a la moderadora, Estitxu Garai, y a quienes contribuyeron a su organización.

### Amatasuna eta kazetaritza

**Amaia Uribe** «Nik esango nuke ama izan aurretik bi berba horiek nigan eragiten zutela beldurra, beldur handia, pentsatzen nuelako amatasunak ateak itxi egingo zizkidala nire lanbidean eta nire lan-arloan. Eta ama izan eta gero, ikusi dut amatasunek ez dituztela ateak ixten. Orain, niretzako, kazetaritza eta amatasuna ikusten ditut iraultza baten moduan. Izan ere, oraindik komentario asko entzun behar ditugu ama garen kazetariok, gure lan-arloan aterik ixten ez dugun amok, batez ere. Ni korrespontsal egon naiz bost urtez New Yorken eta galdera deseroso asko entzun ditut, eta uste dut iraultza-gogo bat sortzen duela horrek nigan».

**Monika Belastegi** «Nik neurri batean bat egiten dut Amaiak esaten duenarekin. Nik esango nuke bi hitzak bakoitza bere aldetik doazela... Kazetaritza, batetik —ia hogeitaz urte daramatzat kazetaritza— oso gustuko dudana ogibidea da. Beste alde batetik, ama naiz, eta hori ere bada oso gustuko dudana jardun bat. Baina biak lotzeko orduan, horrek eragiten didan sententzia da beti uztartzen ibili beharrarena, bi hitzak uztartzeko zailtasunarena, funanbulistarena egiten ibili beharrarena. Baita, sarritan, aukeratzen ibili beharrarena. Hori esango nuke batetik. Bestetik bi hitz horiek eragiten didaten sententzia da, baita ere, kulpasententzia. Kulpasententzia ibilbide profesionalean sakondu nahi izateagatik. Nire inguruan —nik nire ibilbidea Goiena Komunikazio Taldean garatu dut— ikusi dudana da ama izan diren kazetari guztiek, %99ak, nik izan ezik, nolabaiteko baimenak eskatu dituztela, murrizketak... Eta horrek nigan eragin zuen, hasiera batean —gaur egun ia ez—, nolabaiteko zalantza: Ondo egiten ibiliko ote naiz? Akaso, umeari ez diot nahikoa kasu egiten? Gainerako guztiek halako murrizketak eskatuta, eta nik ez... Zentzu horretan ere kulpasententzia aipatuko nuke. Laburrean bi horiek bai behintzat».

**Arantza Gutiérrez Paz** «Nik argi neukan kazetaria nintzenean, aktiboan, ezin izango nuela ama izan (...) Garai horretan niretzat ezinezkoa zen konpatibilizatzea kazetaritza eta amatasuna (...) Esan nahi dut ez nituela ikusten ordutegi horiek, bereziki, Egunkarian nengoenean. Ez genekien zer ordutan sartu, ezta zer ordutan aterako ginen. Lan egin behan zen asteburuetan, eta prentsaurreko batera joan behar baldin bagenuen, zer egingo genuen? Inguruan hori ikusten nuen (...). Kazetaritza eta amatasuna lotzean tabuak apurtu direla esango nuke, edukiei dagokienez. Lehen ez zen horri buruz hitz egiten. Amatasuna zen zerbait existitzen ez zena, bakarrik existitzen zen maiatzaren lehenengo domekan eta azukrez beteriko zera batean. Amatasuna lotzen zen haurdunaldiarekin, baina nik uste dut hori apurtu egin dela eta azken urteetan amatasunei buruzko oso eduki interesgarriak daudela».

## Kazetaritza lanbidearen berezitasunak: lan-baldintzak, diskriminazio-arriskuak, identitateak...

**Monika Belastegi** «Nik esango nuke, alde batetik, beste eragile batzuek markatutako agendaren arabera egiten dugula lan asko, eta agenda horrek ordutegia bera markatzen duela. Erakunde, elkarte zein talde desberdinek antolatutako deialdi, emanaldi, prentsaurreko, pleno, ikuskizun eta abarrak kubritu behar horrek, sarri, goizean hasi eta iluntzean edo gauean bukatzera arteko jardunak ekartzen dituzte. Horrek ez du batere errazten kontziliazioa. Gainera, beti daukazu arduraren hori buruan: kazetaria zara astean zazpi egunez eta hogeita lau orduz, etenik gabeko gauza bat da. Eta horrek ere lagundu, ez du gehiegi laguntzen. Gauza bat da markatutako agenda, nolabait, horrek ere, akaso, modu batera edo bestera antolatzeko aukera ematen dizu, aurreikusita dauden gauzak baldin badira, baina ezustekoak ere gertatu gertatzen dira. Askok gertatzen dira, eta horiei ere erantzun egin behar diegu. Gainera, nik tokiko hedabide batean egiten dut lan, non gertuko kazetaritza egiten dugun, beraz, gure kasuan, etengabe egon behar izaten dugu gertatzen diren gauza guztiei erantzuten, eta horrek jardun luzeak ekartzen ditu askotan eta kontziliaziorako zailtasunak. Hasiera batean hori esango nuke».

**Arantza Gutiérrez** «Aurreko hizlariak hori komentatu du, denbora. Zein inportantea den denbora eta denbora antolatze hori. Kazetaritza esaten da albisteak gertatzen direnean gertatzen direla eta jarraitu egin behar direla hurrengo egunean. Beste batzuetan ere, kazetari moduan lan egiten duzunean, beste aldean —izan ere, hori ere tokatu zait, eta, gainera, hori bai berreskuratu dut— zuk zerbait egin behar duzunean, komunikatu behar duzunean, kazetari batekin ere, batzuetan, zaude ordu txikietan gauza batzuk egiten, hurrengo egunean kazetariak jaso dezan lehenengo orduan, berak ere lan egiteko. Orduan oso ohituta gaude ezorduetan lan egitera, eta umeak daudenean... ni momentu horretan, esan dudana bezala, unibertsitatean nengoen, baina askotan hori pentsatzen nuen, ea goiz joango ote den ohera, zerbait egin ahal izateko, edo goizean... nik nahi nuena zen besteek, pertsona normalek, zeukaten ordutegia berreskuratzea. Hori izan da gauza bat momentu honetan dagoeneko berriro badaukadana, baina oraindik gogoratzen dut pertsona normalek daukaten ordutegia nahi nuela, hain zuzen ere, zaintza-momentu horretan nengoen. Horrela bizi izan nuen nik».

**Amaia Uribe** «Nik ere esango nuke bi arazo handi ikusten ditudala. Batetik ordutegia; izan ere, ordutegi ona eduki nahi baduzue, lanbidea ez duzue ondo aukeratu. Guk albisteak kontatu behar baditugu, albisteak egunero eta une oro pasatzen dira, orduan, guk ez daukagu egun gorririk. Zubiak, Gabonak, Gabon Zaharrak... albistegietan egunero gaude lanean, egunero dagoz albistegiak. Hartu ahalko dituzue zuen oporrak, baina arazoa da ordutegiak oso txarrak direla. Irratian lan egiten baduzue, adibidez, irratian une oro dago lantalde bat lanean, badago jendea dagoena goizaldeko ordu batetik goizeko zortzietara lanean. Hori txanda bat da, eta jendea dago txanda hori betetzen. Nik uste dut, alde batetik, ordutegiak, badaukagula lan bat une oro martxan egon beharra eskatzen duena, eta gero, beste alde batetik, nire kasuan, kontratuetan dauden arazoak. Ni hasi nintzenean, egoten nintzen lanean sei hilabeteko ordezkapen-kontratuak lotzen. Orduan ez nuen ikusten ezta ere aukerarik ama izateko, ze, esaten nuen: «jo, igual ama baldin banaiz, gero ia ez naute deituko, beste norbait kontratatuko dute...». Oso mundu lehiakorra da gurea ere, orduan, hori bai bazen arduraren bat. Horrez gain, esango nuke korrespontsalia batera baldin bazoazte, korrespontsalia batean ez dagoela atsedetik. Ni itzartzen nintzen goizaldeko bost t'erdietan, eta gaueko hamaiketan oraindik egoten nintzen lanean. Ni bost urtez egon naiz New Yorken eta lan egiten nuen telebistarako, bi irratietarako, euskaraz, gaztelaniaz... Orduan, une oro lanean egoten nintzen, eta edozer gauza pasatzen bazen, malleta hartu eta sei orduko bidaia bat egin behar izaten nuen beste estatu batera joateko. Orduan nik hori esango nuke dela arazorik handiena.

**Arantza Gutiérrez** «Bai, nik espero dut gauzak aldatu izana, baina batzuetan diskriminazioa ez da ama izateagatik soilik, baina gertatzen da adibidez, norbait ama denean bat-batean, pentsatzen dutela besteek, adibidez enkargu bat egitean, esaten dute: «bera ama da, ama izango da». Orduan, aurreikusten dute zerbait badagoela, ez? «Ama izango denez, beharbada ez du nahi». Galdetu. Eta batzuetan, esaten dute: «Denbora gehiago exijituko du, bidaiatzea exijituko du». Eta ez dute galdetzen, hori ere gertatzen da. Nolabaiteko diskriminazio bat, beste norbaitek pentsatzen duela, kazetari bat, langile bat ama bihurtzen denean, bat-batean ez duela beste gauza batzuk egiteko nahia ez?, edo indarra eta nahia bai, baina bueno, «kontziliatu behar du». Hori adibidez akats bat da, askotan guztiok egiten duguna, eta horretaz konturatu behar gara, zeren eta nik behin ama bati entzun nion: «orain arte deitzen ninduten hainbat gauza egiteko, mahaietan egoteko, ez dakit nora joateko, zerbait idatzi behar zenean bat-batean esan dut ama naizela, eta bat-batean ez naute deitzen ni babesteagatik! ni zaintzeagatik! eta ez didate ezta aukerarik ematen!». Nik uste dut hori badela modu bat, ez?, diskriminatzeko modu bat. Gero, beste bat izaten da guztiok dakiguna, bai kazetaritzan, eta normalean, espazio publikoa okupatzen dugunean, badagoela espazio formal bat eta ez-formal bat, eta informal hori normalean ere lanorduetatik kanpokoak izaten da, eta izaten da bileretara joan beharra, edo formalak diren beste eremu batzuetatik ateratzen garela, eta hor erabakitzen direla gauza batzuk. Aurretik ere aipatu du aurreko hizlariak batzuetan amek —eta espero dut hori ere aldatzen badoala—, hartzen dugula zaintzaren ardura, eta batzuetan ezin dugula. Eta batzuetan arratsaldeko zazpietan esaten duzu, «umeak bainua hartu behar du», eta ez duzula egiten. Nik uste dut hori badagoela, diskriminazio hori existitzen dela. Alde batetik, espazio ez-formal horietan, eta beste aldetik, batzuetan pertsonak pentsatzen dute eta aurreko hizlariak hitz egin duenean hodei horretan ez duzue esan, baina jartzen du «enfermedad». Batzuek pentsatzen dute haurdun zaudenean eta gero ama zarenean nolabait gaixorik zaudela eta zaindu behar duten gaixoa bihurtzen zarela».

**Amaia Uribe** «Zorionez, nik nire enpresan ez dut inolako diskriminaziorik sentitu, kontrakoa, nire lan-aukerarik onena heldu zitzaidan ama izan nintzen unean. Nire semeak urtebete zuen, eta momentu horretan eskaini zidaten New Yorkera joatea. New Yorkera joatea niretzat erronka profesional bat zen, baina amets bat baita ere, nik txikitatik izan nuen amets hori, eta aukera suertatu zitzaidan. Beraz, nik enpresa barruan ez du diskriminaziorik sentitu, baina galdera deseroso asko entzun behar izan ditut, eta askotan ama txarragoa naizela sentiarazi naute, ez dakiten arren nola zaintzen dudan nire semea edo nolakoa naizen ama bezala. Beraz, noski baietz, eta zortea izan nuen, nire bikotekideak bere lana utzi zuen, ikusi genuelako une horretan lan-aukera onena nik nuela, eta berak bere lana utzi zuen, baina nik galdera asko entzun behar izan nituen, adibidez: «eta nork zainduko du umea?, eta zure senarrak zer egingo du?». Eta hori nire lankideek galdetu zidaten, ez pentsatu laurogei urteko norbaitek galdetu zidanik, beharbada beste ikuspegi bat duenak, ez, nire lankideek galdetu zidaten, eta nik esan nuen: «baina nire aurretik egon zen korrespontsala gizona zen, eta ziur nago inork ez ziola horrelako galderarik egin...: «eta zure semea nork zainduko du?». Edo kontrakoa, nire senarrari, bere enpresak Txinara lanera bidaliko balu, inork ez zion galdetuko, «eta Amaiak zer egingo du?», baina nik galdera horiek entzun behar izan nituen, eta adibidez bi-daia bat egiten nuenean, enpresara deitzen nuenean, norbaitek hartzen zuen telefonoa eta esaten zidan: «Kaixo, Amaia, zer moduz? Kalifornian zaude, eta umea, gaizki egongo da zu gabe, ezta?». Eta nik pentsatzen nuen: «ume horrek aita eta ama ditu, eta beharbada ni ez naiz izango berarekin parkean denbora gehien igarotzen duen pertsona, baina uste dut ama bezala balore batzuk ematen ari natzaiola, azken finean berdintasunean hezten ari naizela, eta beretzat ere ona den aukera bat eman diot, erakutsi diot erronka profesionalekin ez garelaz ukurtu behar, amak eta aitak bere zaintza partekatzen dugula». Eta, gure etxean behar-

bada ikasi ditu balore horiek. Baina bai, nik galdera deseroso asko entzun izan ditut, eta orain Ameriketako Estatu Batuetatik bueltatu naizenean, elkarrizketa asko egin dizkirate, eta gauza harrigarriak galdetu dizkirate, asko harritu nautenak, eta horrelakoetan pentsatu dut: «nik uste nuen aurrera gindoazela, baina oraindik ere galdera hauek entzun behar ditut». Adibidez, imajinatu, elkarrizketa bat egin zidaten ustez nire lanaren inguruan, eta New Yorken egon naizen bost urteen inguruan, eta lehenengo galdera izan zen: «¿Tu fuiste con tu familia, y tu marido no se sentía como el marido de Merkel?». Eta pentsatu nuen, benetan hori da zure lehenengo galdera, ni hemen aurrean izanda? Eta diskriminazioa alderdi horretatik sentitu izan dut gehiago»

**Monika Belastegi** «Bai, nik ere esango nuke amatasunari lotutako diskriminazioa egon bada-goela, eta nire inguruan ere nik hori sumatu dut. Adibide pare bat botatzearren, zuzendari batek eskatu nahi izatea murrizketa bat eta norbaitek esatea: «zuzendariak ezin du murrizketarik eskatu, ez? ama izanda...». Edota haurdun geratu, edota amatasunaren aurreko fase horretan, ez? Haurdun geratu eta telebistako saio bat aurkeztetik aurkezlea kentzea haurdun geratu delako. Bi adibide horiek oso-oso buruan dauzkat. Baina tira, badira orain dela urte batzuk gertatutako gauzak. Pentsatu nahi dut ordutik aurrerapauso asko egin ditugula gurean, Goienan, eta uste dut esan ditudan bi adibide horiek, gaur egun ez liratekeela gertatuko, eta aurrerapausoak egin ditugula. Iruditzen zait nabaritzen dela ezberdintasun bat lehengotik gaur egunera. Zertan? Tira, esango nuke langileen baldintzekiko oro har eta kontziliazioa barne hartuta. Langileen baldintzak askoz aintzatago hartzen direla, eta igual horretan zerikusia du baita ere, ez dakit nola esan, gu kooperatiba bat gara eta kooperatiba horrek hiru presidente izan ditu, lehenengo biak gizonezkoak ziren, gaur egun emakumezkoa da presidentea, ni neu [Barreak]. Gainera, zuzendaritzako bost kide daude, bost kide horietatik hiru emakumezkoak dira eta hirurak amak dira, plantillaren ehuneko berrogeita hamahiru emakumeak gara, eta nik uste dut poliki-poliki ari garela ikasten eta kontzientzia hartzen emakume kazetari izateak zer dakarren amatasunarekin. Ikastaro asko egin ditugu baita ere, June Fernandez aipatu duzu lehen. June Fernandezekin egin ditugu zenbait ikastaro pixka bat parekidetasunaren bidean... egin genuen ikastaroa baita ere Maider Galardirekin eta beste hainbatekin. Genero gaietan adituekin ikastaroak egin ditugu, eta kazetaritza eta generoarekiko ikuspegi bateratua duten hainbat aditurekin baita ere, eta joan gara poliki-poliki ikasten, langileen baldintzekin zerikusia duten gauzak hobetzen joateko eta baita, guk kazetaritza egiten dugu, eta kazetariak garen aldetik, gizartearekiko dugun konpromisoan ere nolabait erantzun ahal izateko. Gauza praktikoagoetara etorrira, gu gurean horretan saiatzen gara [Eztula]. Lehen esaten genituen goizetik gauera arteko lan jardun horiek antolatzen eta nolabait txandakatzen hasi gara, txandak egiten ditugu kontziliazioa errazterako bidean, asteburuetan ere egiten ditugu txandak, beti pertsona berdina ez ibiltzeko asteburuetan bueltaka, eta urtea amaitzen denean hurrengo urteko lan egutegia jasotzen dugu, eta lan egutegian hiru eta sei asteburura bitarteko lan asteburuak markatuta ditugu. Eta telelanerako baita ere, etxetik lan egiteko aukera daukagu. Guk aldizkariak egiten ditugu, webgunea, telebista ere egiten dugu, baina aldizkarien kasuan, esaterako, inbertsio bat egin genuen edizio sistema bat ezartzeko, eta etxetik bete ditzakegu maketa guztiak, etxetik osa ditzakegu aldizkariak, baita webgunea ere. Komeni denean umea zaindu behar duzulako, edota bestelako beharren bat daukazulako umearekin etxean geratzeko... Baina telebistarekin ezin da, telebistarako denbora behar da grabazio bat egiteko, edo platoan egon beharra izaten da, baina eman ditugu urratsak nolabait kontziliazio hori errazteko, eta nik esango nuke badagoela kontzientzia bat eta badagoela gogo bat nolabait horretan aurrerapausoak emateko. Borondatea, jarrera, eta nik uste dut hori [Zaratak] oinarritzeko dela, eta oso garrantzitsua».

**Amaia Uribe** «Nire kasuan ezin dut etxetik lan egin, gu azken finean albistea dagoen lekura joan behar baikara batez ere. Irratiaren kasuan errazagoa da etxetik lan egitea, baina telebistaren kasuan ez, eta batez ere zuzeneko konexioak egiten badituzu hor egon behar duzu albistea gertatu den lekuan, eta etxetik lan egitea pentsaezina da. New Yorken lan egin nuenean ez nuen izan bulego bat, etxetik egiten nuen lan, eta orduan sentitu nuen zuk esan duzun hori. Askotan umeak nirekin nahi zuen egon, baina nik bideo bat editatu behar nuen eta umea nire gainean izaten nuen, eta jolas antzeko bat erakutsi nion kontziliazioa lortu ahal izateko, adibidez zein botoiri sakatu behar zion kronika grabatzeko edo bion artean hautatzen genuen irudia bideoa editatzen ari nintzenean. Horrenbestez, zaila da baina egin ahal da, eta nik lehen esan dut iraultzarako gogoia dudala, eta guztiei esaten diet mundua ez dela amaitzen, gure lanbidea ez dela amaitzen ama izaten garenean. Eta ama izateak aukera asko sortzen dituela baita ere, gure lanbidea ez dela amaitzen ama garenean, adibidez, aukerak sortzen direla beste ama batzuekin konektatzeko eta istorio pertsonal horiek kontatzeko. Ni, adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan egon nintzenean Mexikoko mugan migrazio krisi bat egon zen, eta hor ikusi nuen familia batzuk gurutzatzen zutela Mexiko eta Ameriketako Estatu Batuak batzen dituen erreka txalupa batean. Gauean egon ginen beraiekin, kazetari denak ziren gizonak eta ni emakumea eta gainera ama, eta orduan askok nirekin konektatu zuten, beraien konfiantza lortu nuen. Eta horixe, beste istorio mota batzuk kontatu ahal ditugu eta mundua ez da amaitzen, eta hori gure esku dago, gure bidea jorratzea, eta amatasunak beste ate batzuk ireki ahal dizkigu istorioak kontatzeko orduan».

**Arantza Gutiérrez** «Beno, niretzat lehen entzun dugun kontziliazioarena tranpa bat izan daiteke baita ere. Esaten dugunean kontziliazioa eta urrutiko lana tranpa izan daiteke, zeren horrek noren gainean jartzen du berriro ere pisua eta kontziliatzeko beharra? Hainbatetan baita ere nortzuk garenari buruzko datuak eman dira, nortzuek kontziliatzen dugun normalean, emakumeok. Kontziliazioa ondo legoke erantzukizun partekatuarekin lotuta balego. Baina bai, kasu batzuetan egia da lehen esan dudana, gauzak aldatu direla. Ni kazetaritzan lanean hasi nintzen laurogeiko hamarkada amaieran, eta kazetari guztiak gizonak ziren, erretzaileak, hor egoten ginen erredakzioan, eta gainera, dibortziaz zen normalena [Barreak]. Ez zen normala bikote-bizitza mantentzea eta familia izatea kazetari batentzat. [Ulertezina] Hori kazetaritzan, zeren eta bazeuden baita ere komunikabide publikoak, eta nik uste dut horretan ere ezberdintasunak daudela adibidez lan-baldintzei dagokienez, eta ez dela gauza bera garaiko egunkari, irrati edo telebista batean lan egitea, zeren eta beharbada bazeuden txandak eta ordutegiak, baina ez da gauza bera. Orduan aldatu dira gauzak eta egia da kontziliatzeko tresna gehiago ditugula eta teknologiak ere aukera gehiago ematen dizkigu horretarako, baina gero tranpari erreparatu behar diogu. Eta orain esango nuke gauza batzuetan berdin gaudela, zeren eta adibidez gurasotasun baimenak parekatu diren arren, horretan nire ustez, emakumeok galtzaileak gara, eta hori iritzi pertsonala da, printzipioz ez baitute kontuan hartu ama biologikoek izan ahal duten atsedaldia, eta denbora berbera dugu».

Hori inguruan ikusten dugu, nola guraso batek hartzen duen baimena eta aldi berean oso ondo dagoela bidaiatzen eta beste gauza batzuk egiten, hemen unibertsitatean ikusten dugu adibidez tesiak amaitzen edo lanpostuetarako plazak prestatzen. Ikusten ditugu horrelakoak ere. Orduan kontziliatzeko neurriak hartu behar dira, baina nik uste dut kontziliazioaz aparte gizarte moduan kontzientziatu behar garela, baita jendarte moduan ere. Eta ez da bakarrik esatea: «orain egin daitezke horrelako lanak, errazagoa da». Jendeak pentsatzen du adibidez bilera bat ezin dela arratsaldeko zazpitan egin, laneko bilera baldin bada laneko ordutegian egin behar dela. Oso ondo dago hori guztia, baina politikak sortu behar dugu baita ere, ikusteko gizonen ardura ere badela, eta balioan jarri behar da baita ere. Gizon batek kontziliatzen duela ikusten

dugunean, esaten dugu: «begira gizon hau nolakoa den! eta segur aski ikastaroak egin ditu, Gizonduz eta horrelako ikastaroak, eta ze majoa den...». Ez, ez, ez, ez... ez. Hori ere aldatu behar dugu eta batzuetan gu hasi behar gara hori aldatzen, eta hori esaten dut ere adin bat daukadalako. Eta bagoaz ikusten bidea egin dela, baina batzuetan zuk esaten duzun beldur hori ere ikusten dut, ea berriro emakumeok etxera bidaltzen gaituzten kontziliatzerara, eta berriro ere lan bikoitza egitera, baina erosoago.

## Familia-zaintza

**Monika Belastegi** «Azken batean egia da, ezta? zaintza oraindik ere gizartean, jendartean, emakumeen ardura dela uste den momentutik, hor desabantailan gaude, hortik abiatuta. Eta nik ere lehen esan dut, ezta? Nik gurean ikusten dudana da kazetari amak direnak murrizketa eskatzen dutela ia ehuneko ehunean, etxean geratzen dira lanaldi erdi batekin, eta gero, ibilbide profesionalarekin nolabait aurrera egiteko zailago daukate, zailtasunak ikusten dira. Eta hori argi dago, halaxe izaten da bai. Baina, horixe, nik uste dut zaintza emakumeen ardura den momentutik... gauzak agian hortik aldatzen hasi beharko ginatekeela, ezta? (...) Nik uste dut zaintzaren sozializazioak eragin zuzena duela. Nik gogoan daukat izan nuela kulpa sententzioa, eta ama ona izaten ari ote nintzen zalantza eta kezka, nire lanean jarraitu nahi nuelako, eta nire lanean, ibilbidean, aurrera egin nahi nuelako. Eta hori guztia lotzen da lanean ordu pila bat sartu beharrekin, baina betiere besteen aurrean irudi ona emate horrekin, ezta? Izan behar zara, kazetari ona, noski, nolatan izango zara txarra? Langile bikaina izan behar zara, eta egon behar zara goizetik gauera arte lanean eta abar. Baina gero gainera, izan behar zara ama perfektua, egon behar zara parkean umearekin, umea eraman behar duzu goitik behera garbi-garbi super txukun jantzita, eta inplikatzeko gauza pilo bat, eta beti zaude *gantxoarekin* moduan, ezta? Erantzun nahi dizkiezu kanpotik ezartzen dizkizuten espektatiba batzuei, eta esaten duzu: «aiba, baina ni... tuntuna naiz, edo zer gertatzen da, ez?». Bai, eta negar ere, negar ere egiten da, nik behintzat egin izan dut prozesuan negar ere, bereziki, eta autoflajelatze hori, ez? Eta begiratzen nion, nik mutikotxo bat daukat, beno, hamabost urte ditu orain, eta egia esan inongo traumarik ez dut uste duenik haurtzaindegi ordu batzuk bizi izanagatik. Edota gogoratzen dut, begira ze gauza, ez?

Nik egin nituen amatasun bajako hamasei asteak, eta gero berehala zortzi ordura lanera bueltatu nintzen, beno, zortzi ordura edo bueltatu nintzen erredakziora, eta zorionez, nire erredakzioa nire herrian bertan zegoen. Pixka bat, tokiko kazetaritzaren abantailak ere, ezta? Gertu edo bertan egotea, eta umea haurtzaindegian egoten zen, eta tarteka, edo nire bikotekideak edo nire amak hartu eta ekartzen zidan, bularra ematen nion erredakzioan, berriro eramaten zuen paseotxo bat ematera, eta berriro tokatzen zenean ekartzen zidan, berriro bularra eman... Ez dakit hau zergatik lotu dudan orain [Barreak] esaten ari nintzanarekin! Pixka bat kulpa sententziorekin, baina ideia ezberdinak lotu ditut eta bai, kulpa sententziorena izan dudala eta oso injustua iruditzen zait gainera. Oso, oso injustua da, zeren eta nire erredakzioko aitak ez dut uste horrelakorik bizi dutenik, akaso bateren batek bai, baina orokorrean ez dut uste halako sententziarik izan dutenik, eta hainbeste frogatu beharrik ere ez dut uste izan dutenik, ez kazetari onak direla, ez aita perfektuak direla, ez bata ez bestea gainera».

**Arantza Gutiérrez** «Nik bakarrik anekdota bat kontatuko dut. Niri galdetu zidaten behin elkarrizketa batean noiz konturatu nintzen feminista nintzela, edo noiz jo nuen nire burua feministatzat. Eta nik esan nuen ez dudala gogoratzen nola esan nuen feminista nintzela, baina badakit zein egunetan patriarkatu osoak gurutzatu ninduen, eta orduan konturatu nintzen. Egunduan umea haurtzaindegian utzi eta gero unibertsitatera joateko autobusa hartu nuen, eta ba-

tek esan zidan: «Arantza, ze pena, ze gogorra umea haurtzaindegian utzi eta lanera joatea, ze pena, ez?». Eta nik negargura sentitu nuen eta, pentsatu nuen: «ume honen aita lanera berdin joan da? Sentsazio honekin? Gaur ere negargurarekin dago?». Eta momentu horretan, nik bada- kit momentu horretan konturatu nintzela, hori, errua, ez? Eta gero hainbatetan sentitu izan dut, eta galderak, eta hainbat gauza, eta nik gero izan dut aukera kolaboratzaile moduan komunika- bideetara itzultzeko, baina izan zen nire semeak oso nagusiak zirenean. Eta gainera, nik eskertu egin dut. Lehen esan dudanean, nik momentu horretan ez nuen ikusten zera batzuetan eta ni espazio publikora, nolabait ere komunikazioko espazio publikora itzuli nintzen ondoren. Baina bai, momentu horretan gogoratzen dut, hori autobusean nola sentitu nuen: «eta... zerga- tik galdetu didate niri, ez? Zergatik beti galdetzen digute guri?», holako zerbait».

**Amaia Uribe** «Nik goizero-goizero umea ikastolan uzten dudanean begirada batzuk nabaritzen ditut, ni *malamadre* naiz guztiz, zeren eta nik 15:00etatik 22:00etara lan egiten dut, gaueko 23:00etan iris- ten naiz etxera. Horrek esan nahi du nire semeak arratsalde osoan ez nauela ikusten ez bada tele- bista pizten duela. Orduan errudun sentitzen naiz, baina une honetan hauxe da dagoena, eta hauxe da daukadan txanda, eta lana, eta saiatzen naiz beste modu batera kontziliatzen. Asteburuetan pilo bat denbora egoten naiz berarekin, goizetan, eguerdietan, bazkaltzera etxera eramaten dut, baina errudun sentitzen naiz, hala ere, eta gainera, ingurukoek errudun sentiarazten naute, azken finean oraindik ere begirada asko nabaritzen ditudalako, beste ama batzuen aldetik, gainera.

## Konponbideak, erronkak, hobetzeko neurriak

**Amaia Uribe** «Guk lankideon artean hitz egiten dugu honen inguruan, eta EITBko korrespontsal de- nak bat izan ezik emakumeak dira, eta bat baino gehiago amak. Baina, korrespontsal bat haur- dun geratu zenean deitu egin ninduen, eta esan zidan: «Amaia, hau posible da egitea? Uztartu ahal ditut korrespontsalia bat eta umea? Kazetari txarragoa izango naiz ama izateagatik? Ama txarragoa izango naiz korrespontsala izateagatik?». Eta nik esan nion ezetz, uztartu ahal dela, eta gure esku dagoela amatasun hori bizitzea gure lanbideari eta lan-aukerei uko egin gabe. Or- duan, gure artean hitz egiten dugu, eta batez ere arlo honetan gaudenon artean. Zein neurri hartu ahalko ziren? Nik uste dut lehen esan duguna, ezta? Beharbada gizarteak ireki beharko li- tuzkeela begiak eta ez zaintza beti emakumeen gauzatzen jo, azken finean ume batek ama eta aita dituelako, eta zaintza partekatua izan ahal delako. Zorionez gure familian hori aurrera era- man dugu eta eramaten jarraitzen dugu, baina uste dut gizartean gauza asko aldatu behar di- rela. Nik nire enpresan, lehen esan bezala, lan-aukera hori ama izanda jaso nuen, eta arratsal- deko txanda honetan jarri nindutenean ere esan zidaten: *Edozein arazo baduzu lasai, probatu, eta umearekin ez bazara moldatzen aldatuko genuke txanda*. Orduan, nire kasu pertsonalean in- guruan eta gizartean ikusi dut hori lanean baino gehiago».


**Monika Belastegi** «Nik esango nuke gurean ere kontziliazioarena badela erredakzioan askotan hitz egiten den gai bat, eta gainera eremu formal eta ez-formaletan. Kafe orduan hitz egiten dugu, baina gero, adibidez, Berdintasun Batzordea sortu genuen, eta bertan gai hori lantzen da urte- ro-urtero. Beste behin kudeaketa-planerako proposamenak ere jaso genituen, eta nik uste po- liki-poliki bagoazela aurrera. Lehen esan dudanean bezala, aurrerapausoak ematen ari gara ahalik eta modurik onenean, ezta? Ditugun baliabideekin eta erraztasun gehienak emate aldera. Eta zein neurri hartu beharko lirakekeen? Ez dakit, pixka bat Amaiak esan duena, ezta? Gizarteak zaintzaren kontzientzia hartzea, biena, aitaren eta amaren kasuan. Bien ardura dela, eta enpre- sak dituen baliabideen arabera ahalik eta erraztasun gehienak eman behar ditu, horixe da buru- ratzen zaidana. *Varita* magikoa izango banu, baina... ».

**Arantza Gutiérrez** «Nik uste dut unibertsitateak ere ardura duela horretan, ezta? Eta komunikatzaile eta kazetariak baita ere, eta nolabait, guk, hemendik ateratzen zaretenean, guk ere badaukagula ardura horretaz hitz egiteko. Gaur bezalako jardunaldietan eta baita gure irakaskuntza horretan ere hitz egitea genero arrakalaz, hitz egitea gauza horiei buruz, eta, gainera, erreferentzialtasunak ematea. Esatea nolako lanak dauden eta aukerak ematea, eta nolabait ere ikusgai jartzea. Hori alde batetik, kazetaritzak baduela generoa, eta horren inguruan ikeritzen dugula, baina ere badituela tresnak genero arrakala horiek guztiak gainditzeko. Orduan, unibertsitateak ere ardura hori baduela, eta hori lantzen jarraitu ahal dugula. Nik uste dut aurrerapausoak eman ditugula, gaur egungoak ez duela zerikusirik fakultate honetan ikasten genuenarekin, edo kazetaritza motak duela hogeita hamar urtekoarekin, orain irakasten dugun kazetaritza-motarekin. Eta esan nahi nuen hau dela, batek esan zuen bezala, dagoen lanbiderik onena».

## Bideotestigantzak • Videotestimonios

EMAKOM 2023 jardunaldiaren amaiera gisa proiektatutako bideotestigantzen transkripzioak  
Transcripciones de los videotestimonios proyectados como cierre de la Jornada EMAKOM 2023

### Nerea Reparaz, kazetaria



Amatasuna, kazetaritza eta kontziliazioa. Ni hiru hitz hauek eramaten naute, ezinbestean, korrespontsal izan nintzeneko garaira. Ordutegirik gabeko eta bokaziozko lan horretan nengoela erabaki bainuen ama izatea, eta bi gauza datozkit burura: batetik, kanpoko begiradari lotuta, eta jaso nituen galderak: nola antolatuko zara? nola egingo duzu? nola ausartu zara? Alegia, sektorean eta korrespontsalietan gizonetzkoek erantzun behar izan ez zituzten galdera guzti horiek. Eta beste bat, nik neure buruari jarri nion nolabaiteko tranpa. Alegia, pentsatzea erritmo berean lanean jarraitu ahalko nukeela, hori baitzen niretzat orduan profesional ona izateko beharrezko erritmoa, ekuaizioari haur bat gehituta. Biak ala biak okerrak izan dira.

### Monika Belastegi, kazetaria



Bereziki hiru gauza aipatuko nituzke: batetik, kontziliaziorako zailtasunak. Tokiko hedabide baten dihardut, eta neurri handi batean, beste eragile batzuek markatutako agendaren eta ordutegiaren arabera egiten dugu lan, eta horrek kontziliaziorako zailtasunak ekartzen ditu: kazetaritzak ez du etenik, kazetari gara 24 orduz, astean 7 egunetan, eta tokikoen kasuan, baliabide gutxiago izanik, kontziliaziorako zailtasunak areagotu egiten dira ama izan eta gero. Beste alde batetik, lan murrizketak bereziki amek eskatzen dituzte. Gurean behintzat, amak dira murrizketa eskatzen dutenak, ia % 100ean esango nuke, bi arrazoiengatik bereziki: alde batetik, badagoelako ustea oraindik ere umeen zaintza

amaren ardura dela, eta beste alde batetik, gurea ogibide prekarizatua delako. Kooperatibaren bihoztzean bizi gara, soldata onak dauden bailara batean, eta murrizketa eskatzerakoan, ama kazetariak eskatzen du. Eta hirugarrenik, aipatu nahi dut kamera aurrean haurdun dauden kazetari gutxi agertzen direla, salbuespenak salbuespen, haurdunaldia ez da batere ikusarazten den egoera.

### June Guenetxea, kazetaria



Kazetaritzaren eta kontziliazioaren inguruan, esango nuke kazetaritzak berak baduela izaera bat kontziliazioarekin ez dena oso bateragarria, askatasuna eskatzen duelako. Gauzak gertatzen direnean, gertatzen diren lekuan egon behar garelako. Eta beste alde batetik, sektore honetan, beste sektore guztietan moduan, badago emakumeekiko presio estruktural bat kontziliazioaren inguruan. Nire inguruan ikusi dudanetik, eta sektore guztietan, emakumeok gara murrizketak eta horrelako neurriak hartzen ditugunak gure lanaldietan, eta horretaz gain, askotan ardura hori lanera ere ekartzen dugu... umeen sarrera eta irteerak eskolatik, gaixorik badaude nori deitzen dioten, eta horrelako gauzak. Eta horrek ere egiten du emakumeon motxila askoz ere astunagoa izatea, bai lanean, eta baita gero gure denbora librean lanarekiko.

### Saioa Martija, kazetaria



Kaixo, Saioa Martija naiz, Euskal Telebistako kazetaria, iluntzeko 7ak dira, oraintxe iritsi naiz etxera, eta duela 12 ordu gutxi gorabehera atera naiz, lanera joateko, nire pasioarekin gozatzeko. Oraintxe, egunean lehenbizikoz elkartu naiz alaba txikienarekin, bi dauzkat, eta ikusten duzue, ohea ere egin gabe daukagu... horrela moldatu gara gaur, ezta? Tira, kazetaritzaren helburuak izan behar du, nik uste, galderak sorraraztea, eta kontziliazioarekin, noski, niri behintzat galdera asko etortzen zaizkit burura: ondo egiten ari ote naiz?

### María Ganzabal, irakaslea eta ikertzailea



La verdad es que no se si el periodismo es la mejor profesión para conciliar con la maternidad, porque estas cosas de última hora que surgen, estas ruedas de prensa de última hora, o entrevistas de última hora... hacen que tengas que salir corriendo, dejes tu casa, dejes tus hijos, y te quedes un poco con ese cargo de conciencia, de decir: «he abandonado realmente lo que más quiero por mi profesión y por cubrir la noticia». Pero es así.

### Udane Goikoetxea, irakaslea eta ikertzailea



Lanean ez daukagu aparteko laguntzarik, kazetariok ere ez. Aldaketez, aurrerakuntzez, eta bes-telako gainerakoez hitz egiten da, baina kontua da, eta esaten den bezala, ez dira gauza bera azala eta mamia, edo beste era batera esanda, gauza bat da itxura, eta beste bat da errealitatea. Egia da, eta aitortu egin behar da, batez ere horrelako foroetan, asko aurreratu dela, asko aurreratu dugula, baina beharbada ez uste den bezainbeste. Datuek diote soldata arrakala geroz eta txikiagoa dela, edota ardura handiko lanpostuetan geroz eta emakume gehiago dagoela, baina azpimarratu behar dugu diskurtsoak bateratua izan beharko lukeela gaur-gaurkoz, eta baita aurrera begira, bide hau urratu nahi bada. Lanean ez daukagu aparteko laguntzarik, eta kazetariok ere ez. Egia da, eta nire kasu pertsonalera etorrira, irratigintzan urte luzez jardun ostean, bat egiten dutela denbora lerro horretan seme-alaben etorrerak eta lan aldaketak, akademia mundu honetara. Kasualitatea? Ba ez dago kasualtaterik, baina horrelako foro gehiago behar dira, esan bezala, hausnarketarako, eta batez ere diskurtso bateratu horrekin aurrera egin ahal izateko.

